

EROSKETA BALDINTZA OROKORRAK



MONDRAGON
ASSEMBLY

1. ALDERDI OROKORRAK

Erosketa baldintza orokor hauek baliogabetu eta ordeztu egiten dituzte data hori baino lehen argitaratutako baldintza orokorrak, aldean artean aldez aurretik indarrean zegoen edozein akordio (berariaz aplikatzea adosten ez bada behintzat) eta hornitzailearen beste edozein baldintza orokor, edozein dela ere haiek egiteko edo onartzeko data.

Baldintza orokor hauen ondorioetarako, alderdi erosletzat hartuko da Mondragon Assembly S.Coop sozietatea, egoitza soziala Baintxe industrialdeko 5A pabiloian duena (aurrerantzean, "**Mondragon Assembly**" edo "**Eroslea**", berdin-berdin).

Era berean, "Hornitzaile" edo "Saltzaile" terminoak Mondragon Assembly baldintza orokor hauek aplikagarri zaizkion edozein eskaera bidaltzen dion hornitzaileari egiten dio erreferentzia.

Baldintza Orokoren xedea da Hornitzailearen eta Eroslearen arteko harreman juridiko-komertzialak arautzea; beraz, Erosleak Hornitzaileari bidalitako eskaera bakoitzean bidaliko dizkio edo, hala badagokio, eskaeran aipatuko ditu (aurrerantzean, "**Eskaera**"), eta alderdiek eskaeran bertan edo eskaerari atxikitako edozein dokumentutan edo edozein dokumentu osagarritan berariaz arautu ez dituzten termino edo gai guztietan aplikatuko dira. Baldintza Orokor hauetako estipulazioen bat aplikatzeko salbuespen oro baldintza horiek adosten diren Eskaera zehatzari baino ez zaio aplikatuko, eta, beraz, ez da Hornitzailearekin izenpetzen diren beste eskaera edo kontratu batzuetara zabalduko.

Baldintza Orokor hauek Hornitzaileak Eroslearentzat Eskaera guztiei aplikatu beharko zaizkie, bai eta eroslearen filialentzat egindakoei ere, ondorio guztietarako filialak erosletzat hartuko baitira (filialen kasuan, soilik euren erosketa baldintza propioak aplikatzea adostu ez badute). Aurrekoari kalterik egin gabe, eskaerak eta haiekin lotura duten akordio guztiak lotesleak izango dira Mondragon Assemblyrentzat –edo haren filialentzat, kasua bada–, baldin eta inprimaketan jaso badira eta sinadura baimenduarekin sinatu badira. Telefono bidezko akordioek idatziz berretsi behar dira.

2. ESKAERAREN ONARPENA

- a) Ondorio guztietarako, Eskaera bat onartutzat joko da baldin eta Hornitzaileak ados dagoela adierazten badu, dela berariaz, jasotze agiriaren bidez, dela tazituki, Eskaeraren arrazoia diren lanak hasiz, edo Eskaria igortzen den egunaren ondorengo 5 egun naturaletan idatziz oztoporik jartzen badu. Zentzu horretan, eskaera aurretik azaldutako edozein eratan onartzeak esan nahi du baldintza oroko hauek erabat onartzen direla.
- b) Hornitzaileak bere dokumentuetan edo korrespondentzian baldintza orokor hauen aurka jarritako klausula oro ez da baliozkotzat joko, Mondragon Assemblyk aldez aurretik, berariaz eta idatziz onartu ezean.
- c) Eskaerak, garatzen diren idatzizko jarraibideekin eta baldintza eta termino orokor hauekin, Mondragon Assemblyren eta hornitzailearen arteko akordio osoa jasotzen du. Aldaketa horiek egiteko, Mondragon Assemblyren berariazko eta idatzizko onarpena behar da aurretik.

- d) Hornitzaileak eskaera onartzen badu, berariaz zein isilbidez izan, hornitzaileak automatikoki uko egingo dio dagozkion baldintza orokorrak aplikatzeari.
- e) Baldintza orokor horiek eskaeran deskribatutako ondasun eta produktuak saltzeko eta erosteko, hornitzaileak eta saltzaileak, hurrenez hurren, bete beharko dituzten termino eta baldintza eskusiboak ezartzen dituzte. Baldintza Orokor hauetan xedatutakoaz bestela edo xedatutakoari gehitzeko Hornitzaileak proposatutako termino eta baldintzak ez ditu Erosleak onartuko. Erosleak berariaz baztertuko ditu eta ez dira Eskariaren zatia izango, Erosleak aurretik berariazko eta idatzizko baimena duten kasuetan izan ezik.
- f) Hornitzaileak agintzen du Erosleak eskariko ondasun eta produktuen diseinuan zein ezaugarrietan edota fabrikazio prozesuan egiteko eskatzen dituen aldaketak egingo dituela, betiere aldaketak aurretiaz jakinarazten bazaizkio Eskaria benetan gauzatzen hasi denari.
- g) Hornitzaileak eskubidea izango du erosketaren prezioen berrikuspena erreklamatzeko, baldin eta proiektatutako aldaketek eskaera gauzatzeko kostuak handitzea badakarte eta hala egiaztatzen bada.
- h) Hornitzaileak ezingo ditu hauek aldatu: (i) ondasun eta produktuak (ingeniaritza, diseinua, prezioak eta abar barne), (ii) fabrikazio prozesua, (iii) azpikontratatistak edo hornitzaileak, ez eta beste batzuk ere, eroslearen alde aurreko baimenik gabe.
- i) Eroslearen alde aurreko baimenik gabe egindako aldaketak alde bakarretik egingo ditu hornitzaileak, eta ez dira baliodunak izango eta, beraz, aplikagarriak ere ez. Gainera, ezingo dute inolako eraginik izan prezioan.

3. ENBALATZEA, MARKATZEA ETA GARRAIATZEA

Hornitzaileak hornitutako produktu guztiak Eroslearen eskakizun bereziak betetzeko enbalatu, markatu eta bidaliko dira, bai eta helmugako herrian edo herrietan aplikatu beharrekoak diren edo etiketatze, markatze eta enbalatzeri buruz dauden lege, arau, erregulazio, agindu, hitzarmen, ordenantza edo estandarrak betetzeko ere.

Dena dela, eta Erosleak emandako jarraibideei edo ezarritako eskakizunei kalterik egin gabe, Hornitzaileak hornitu beharreko ondasun eta produktuen osotasuna eta segurtasuna bermatuko ditu, horretarako Eskariaren xede diren ondasun eta produktuak kalitate baldintzetan eta merkatuko goreneko estandarren arabera bidaliko direla bermatzeko egokiak diren neurriak ezarriz.

Hornitzaileak aduana betebeharrak betetzeko, jatorrian markatzeko edo beharrezko etiketak jartzeko eta tokiko edukiei buruzko jatorriko eskakizunak betetzeko beharrezkoak den dokumentazioa guztia (baita dokumentazio idatzia eta transakzio elektronikoen erregistroak ere) emango dio Erosleari. Aldeen artean beste zerbait hitzartzen ez bada, esportazio lizentziak edo esportaziorako beharrezkoak diren baimenak Hornitzailearen ardura dira, Eskarian beste modu batean adierazi ezean, eta, hala bada, Hornitzaileak beharrezkoak diren lizentziak edo baimenak eskuratzeko beharrezkoa izan daitekeen informazioa emango dio Erosleari, hark eskuratu ahal ditzan.

4. ENTREGATZEKO BALDINTZAK ETA EPEAK

Entregatzeko baldintzak eta epeak funtsezkotzat joko dira, eta, beraz, lotesleak eta derrigor bete beharrekoak izango dira Hornitzailearentzat. Hornitzaileak eskaera atzerapenez beteko dela aurreikusten badu, berehala jakinaraziko dio Erosleari, baina hori eginda ere Hornitzailea ez da erantzukizunetik salbuetsita geratuko. Atzerapenak irauten duen bitartean, Erosleak, Hornitzaileari aurretiaz jakinarazita, beste iturri batetik eskuratu ditzake hornigaiak, eta eskarian adierazitako hornigai kopurua gutxitzeko eskubidea izango du, hori dena atzerapenak eragin dizkion kalte eta galeren ordaina eskuratzeko eskubidea eskatzeari uko egin gabe.

Hornitzailea da atzerapen batek eragindako kalte eta galera guztien erantzulea, kontratu harremanean adostutakoaren arabera, tartean direla garraio kostu gehigarriak eta berrabiarazte kostuak edo Eskaeraren xede diren produktuak hirugarrenei erosteko egindako gastu gehigarriak. Atzerapena benetakoa edo aurreikus daitekeena bada, Hornitzaileak Erosleari jakinarazi beharko dio atzerapena gertatuko dela jakin bezain laster, eta atzerapena saihesteko edo minimizatze beharrezko neurri guztiak hartu beharko ditu, bere kontura.

Aurreko atalean xedatutakoaz gain, entregatu beharreko produktuen entrega atzeratzen bada, Hornitzaileari %1eko penalizazioa ezarriko zaio eskaeraren prezioan, atzerapen aste bakoitzeko. Kontzeptu horrengatik gehieneko penalizazioa ezin izango da Eskariaren balioaren %5 baino handiagoa izan. Erosleak Hornitzaileari zor dizkion fakturen prezioarekin konpentsatuta ordaindu daiteke penalizazio hori.

Atzerapenagatiko penalizazioa ezarrita ere Hornitzaileak erantzulea izaten jarraituko du, eta atzerapenaren ondorioz sortutako kalte-galera guztien ordaina ordaindu beharko dio Erosleari.

Entrega behar baino 4 aste beranduago egiten bada, eta betiere atzerapena ez bada eroslearen beraren zirkunstantzien ondorio, Erosleak indarrean dagoen kontratu harremana suntsiarazteko ahalmena izango du, eta Hornitzaileari lehen aipatutako zigorra ez ezik atzerapenak eragin ahal izan dizkion kalte-galeren ordaina ere eskatu ahal izango dio.

Hornitzaileak entregak behar baino lehen egiten baditu edo eskarian edo programan jasotakoa baino gehiago entregatzen badu, Erosleak aukera dauka behar aurretiaz jasotakoak edo jasotako gehiegizko kopuruak itzultzeko edo bere biltegietan onartzeko.

Lehenengo kasuan, Hornitzaileak bere gain hartuko ditu itzulketaren arriskuak eta gastuak; bigarrenean, berriz, jasotakoak onartzeak ez du aldaketarik ekarriko eroslearen ordainketa betebeharretan, eta, beraz, eskaeran edo programan aurreikusitako zenbatekoak ordaindu beharko dira, eta bertan ezarritako epeetan.

Entregarekin batera albaran bat aurkeztu beharko da – eta materialaren ziurtagiri bat, halakorik badago –, Hornitzailearen eskaera zenbakiarekin eta idazpuruarekin. Bertan, Eskariaren baldintza berberetan entregatu diren Produktuak zehaztuko dira, eta, hala badagokio, horien xehakapena, kutxaka edo beste edozein enbalajetan xehatua, bai eta fardel kopurua eta horien pisu gordin eta garbiak ere

Produktu guztiak behar bezala identifikatu behar dira, Eroslearen barne kodea adieraziz eta Produktu motarako egokia den enbalajearekin, zeina Erosleak alde aurretik onartu beharko duen. Hornitzaileak Produktuen trazabilitatea bermatu behar du, baita haiei lotutako osagaiak eta materialak, hala badagokio, produktuaren bizitzan zehar egiten diren eragiketa guztiak ere (garraioa, prozesua, mantentze lanak, etab.).

Salgaiarekin batera eskatutako dokumentuak joan beharko dira beti, hala nola eskarian, planoetan edo arauetan eskatutako planoak, ziurtagiriak, jarraibideak eta abar. Dokumentu horiek gabe ez da harrera prozesua hasiko.

5. KOMENENTZIAGATIKO EBAZPENA

Eskaera gauzatzeko edozein fasetan, erosleak bukaera eman ahal izango dio eskaera gauzatzeari, osorik edo zati batean, Hornitzaileari 15] egun lehenago idatziz jakinarazita.

Jakinarazpena jaso ondoren, Hornitzaileak honako hauek egin beharko ditu:

- 1.- Deuseztatzen den eskaerari buruzko lan guztiak berehala amaitzea eta suntsiarazpen abisuak eragindako eskaera eta azpikontratu guztiak ezeztatzea.
- 2.- Berak egindako lanak eta eskaerak eta azpikontratistek egindako lanak likidatuko ditu.
- 3.- Jabetza transferituko du eta erosleari honako hauek emango dizkio:
 - a). Eskaeran eskatutakora hertsiki egokitzen diren salgai edo amaitutako lan guztiak.
 - b). Ezeztatutako eskaerak gauzatzeko erositako materialak edo produktuak lantzeko egiten ari diren lan guztiak edo salgai guztiak, baldin eta Hornitzaileak, arrazoiz, bere stockerako edo beste bezero batzuetarako produktuak egiteko erabili ezin baditu eta eskaeran eskatutakora egokitzen badira
- 4.- Berak dauzkan ondasunak babesteko beharrezkoak diren neurri guztiak hartuko ditu, baldin eta Erosleak ondasun horien gainean eskubiderik badu edo eskuratu badezake.
- 5.- Erosleari berehala aurkeztuko dio bere erreklamazio idatzia, benetan suntsiarazten den egunetik hasi eta gehienez ere 2 hilabeteko epean (hilabete bat, soilik suntsiarazpen partziala izan bada), baldintza honen aurreikuspenen arabera.

Hornitzaileak aurkezten ez badu, Erosleak Hornitzaileari zor dion zenbatekoa zehaztu ahal izango du. Erosleak horrela zehaztutako zenbatekoa irmoa eta behin betikoa izango litzateke.
- 6.- Erosleak, baldintza honen indarrez kontratua suntsiaraztean, materialen zenbatekoa, baliatutako eskulana eta gastu orokor egozgarrien zati proportzionala ordainduko dizkio Hornitzaileari. Hornitzailearen azpikontratistek prozesuan dituzten produktuen likidazioa aurreko paragrafoko irizpide bera aplikatuz egiten da.
- 7.- Egindako lanen balorazio posiblea kontuan hartuta, balorazio horretarako Erosleak egokitzen dituen dokumentuak emango dizkio Hornitzaileak Erosleari.
- 8.- Klausula honetan ezarritakoa ez da aplikatuko baldin eta Erosleak Hornitzaileari egotz dakiokeen atzerapenagatiko edo ez-betetzeagatiko eskaera suntsiarazten badu, edo kontratu honen 22. Klausulan deskribatutako egitatezko kasua gertatzen bada; kasu horretan, Erosleak ez du inolako betebeharririk izango suntsiarazpenaren ondorioz.

- 9.- Nolanahi ere, Erosleak, edozein kontzepturengatik, Eskariaren prezioari baino ez dio erantzun beharko, eta ez gerta daitezkeen zeharkako eta/edo ondoriozko kalteei, lortu gabeko irabaziei edo ekoizpen galerei.

6. HORNITZAILEAREN EZ-BETETZEAGATIKO SUNTSIARAZPENA

Erosleak Eskaera suntsiarazi ahal izango du, osorik edo partzialki, Hornitzaileak dagozkion betebeharrak betetzen ez baditu.

Ondorio horietarako, eta izaera mugatzailerik gabe, Erosleak Eskaera suntsiarazteko ahalmena izango du ez-betetze kasu hauetan:

- a) Atzerapenengatiko penalizazioen gehieneko mugara iristean, Baldintza Orokor hauetan ezarritako terminoetan.
- b) Hornitzaileak eskatutako kalitatea edo kantitateak ez betetzean.
- c) Hornitzaileak bere azpikontratistei zor dizkien kopuruak ez ordaintzean, nahiz eta kaudimengabeziagatik prozedura judizial bat hasi.
- d) Eroslearen baimenik gabe eskaera osorik edo zati batean lagatzean edo azpikontratitzean.
- e) Eskaeraren xede diren produktuetan Erosleak baimendu gabeko aldaketak egitean edo produktuen ezaugarriak Erosleak ezarritakoez desberdinak izatean.

Ez-betetzeagatiko suntsiarazpena idatziz jakinarazi behar zaio Hornitzaileari, suntsiarazpen hori eragin duen ez-betetzea gertatu dela egiaztatu bezain laster.

Suntsiarazpenaren abisuan, Hornitzaileak hogeita hamar (30) eguneko epea izango du ez-betetzea zuzentzeko. Epe hori igarota, ez-betetzea zuzendu ez bada, eskaera automatikoki suntsiaraziko da.

Kontratua ez betetzeagatik suntsiarazten bada, Hornitzaileak ez du eskubiderik izango Eskaeratik eratorritako konpentsazioko kalte-ordainik jasotzeko

7. SALGAIAREN ONARPENA, KALITATEA ETA PRODUKTU DESEGOKIAK

Hornitzaileak entregatzen dituen ondasun eta produktu guztiak Erosleak Eskaeran, erantsitako dokumentuetan, arauetan, planoetan, ikuskapen jarraibideetan eta abarretan eskatutako kalitate zehaztapan guztietara egokitu beharko dira, eta Erosleak harrerako ikuskapenetan aplikatzen dituen kontrol sistemen mende egon ahal izango dira.

Hornitzailea arduratuko da Mondragon Assemblyk emango dizkion zehaztapan teknikoak eta kalitate arauak kontrolatzeaz, artxibatzeaz eta kooperatiba barruan zabalitzeaz.

Erosleak produktuen edozein akats jakinaraziko dio Hornitzaileari, akatsa aurkitu bezain laster, baina horrek ez du esan nahi Erosleak entregatzen zaizkion produktuak ikuskatzeko betebeharra duenik.

Entregaren albarana edo beste edozein dokumentu izenpetzeak ez du esan nahi, inondik inora, berariaz edo inplizituki onartzen dela entregatutako produktuei berez dagozkien betebeharrak betetzen direla, ez eta Hornitzaileari bere betebeharrak betetzeko eskatzeari uko egiten zaionik ere. Ordaintzea ere ez da produktuen kalitatea onartzea edo kalitatearen onarpena adierazteko modua. Beraz, entregaren ondoren, jasotako Produktuak Erosleak fabrikatutako beste ondasun batzuetan sartu ondoren ere Erosleak produktuetan antzeman daitekeen edozein hutsegite, galera, kalte edo desadostasunengatik dagozkion eskubideak izaten jarraituko du

Zehaztapen teknikoak edo kalitatekoak betetzen ez badira, Erosleak jarduera hauetako edozein aukeratu ahal izango du.

- a). Partida osoa atzera bota eta bueltatzea, jaso gabekotzat jota, eskaera edo programa betetzeko.
- b). Materiala errefusatzea, osorik edo zati batean, hornitzaileak birjarri gabe.
- c). Partidaren zati bat atzera botatzea, Eskaera baliogabetu gabe, eta atzera botatako zatia berriz jartzea.
- d). Salgaiak banan-banan ikuskatu eta zuzen direnak bereiztea, eta gainerakoak Hornitzaileari bueltatzea, ahal bada zuzentzeko, edo, erosleak berak beharko balitu eta ahalko balitz, erosleak zuzentzea. Kasu horietako edozeinetan, Erosleak Hornitzaileari emango dizkio % 100 ikuskatzeko edota lehengoratzeko egindako eragiketa gehigarriei dagozkien karguak.

Kasua bada, kalitate egokia ez duten piezak edo materialak itzultzearen edo ordeztearen arriskuak eta gastuak Hornitzaileari janaraziko zaizkio, eta Hornitzaileak gehienez ere 7 egunetan erretiratu edo ordeztu beharko ditu, gastuak berak ordainduta. Piezak edo materialak erretiratu edo ordeztu Erosleak egingo balu, berriz, Hornitzaileari jasanaraziko zaizkio gastuak.

Erosleak emandako planoekin fabrikatutako piezak itzuli eta lehengoratu ezin badira, erabilezin utzi beharko dira.

Salgaiaren bidalketarekin batera erantsi beharreko dokumentuen baldintzak ez betetzeak (albaranak, planoak, erabilera instrukzioak, kalitate jarraibideak, ziurtagiriak, etab.) baldintza honen a) letran aurreikusitakoa aplikatzeko aukera ematen dio Erosleari.

Jasotako salgaiaren akats edo akats ezkutuak salatu ahal izango ditu Erosleak, bai salgaia jasotzen duenean, bai jaso ondoren, entrega albarana sinatzen denetik hasi eta hurrengo 2 urtean. Kopuru diferentziak eta ageriko akatsak 3 hilabeteko epean salatu ahal izango dira, entrega albarana sinatzen den egunetik zenbatzen hasita.

8. AUDITORIAK

Erosleak ikuskatu eta egiaztatu ahal izango ditu Eskaeraren xede diren ondasun eta produktuei buruz beharrezkotzat jotzen dituen kontu guztiak eta, zehazki, Eskariaren eta Baldintza Orokor hauen arabera onartutako betebeharrak behar bezala betetzen direla egiaztatzen bideratutako guztiak.

Adierazpen izaerarekin, baina ez mugatze izaerarekin, Erosleak Eskariaren xede diren materialen eta ondasun eta produktuen zatien kalitatea ikuskatu eta egiaztatu ahal izango du, bai Hornitzailearen instalazioetan, bai azpikontratistenetan, fabrikazioan zehar eta hura amaitu ondoren. Ikuskapena eta egiaztapena fabrikazio lekuan egingo dira; horretarako, Erosleak Hornitzaileari jakinarazi beharko dio ikuskapena egin baino HIRU (3) egun baliiodun lehenago, gutxienez. Horretarako, Hornitzaileak bere instalazioetara sartzeko baimena eta erraztasunak emango dizkio Erosleari, egoki deritzon guztietan, eta Eskaerarekin eta horrekin lotutako edozein jarduketarekin lotutako dokumentazio guztia emango du.

Ikuskapenaren eta egiaztapenaren ondorioz, Erosleak uste badu hornitu beharreko material edo produktuen zati jakin batzuk akastunak direla edo ez datozela bat Eskaeran ezarritakoarekin, Hornitzaileari jakinaraziko dio idatziz, bere oharrak adieraziz, eta Hornitzailea behartuta egongo da hautemandako akatsak zuzentzera, entrega data errespetatuz.

9. JABEGOAREN TRANSFERENTZIA ETA ARRISKUAK

Eskaeraren xede diren ondasun eta produktuen jabetza Mondragon Assemblyri transmitituko zaio entrega albarana sinatzen denean edo prezioa ordaintzen denean, bi horietatik lehenengo gertatzen denean; arriskua, berriz, ondasunak eta produktuak entregatzen direnean transmitituko da, alderdiek berariaz itundu dezaketena salbu, eta horretarako, entrega albarana sinatu beharko da helmugan.

10. AZPIKONTRATAZIOA ETA LAGAPENA

Eskaeraren xede diren produktuen hornidura osorik edo zati bat beste enpresa batzuei azpikontratatzeko, Hornitzaileak Eroslearen baimena eduki behar du aurretiaz eta idatziz. Erosleak, berriz, eskubidea izango du azpikontratistaren instalazioetara joan eta azpikontratutako Produktuek zehaztutako eskakizunak betetzen dituztela egiaztatzeko.

Azpikontratazioak ez du, inola ere, kontratu harremanik sortuko Eroslearen eta azpikontratistaren/azpikontratisten artean.

Hornitzaileak, halaber, ezingo du Eskaera hirugarren baten esku utzi, ez osorik eta ez partzialki, Erosleak horretarako baimena idatziz ematen ez badio behintzat.

Dena dela, azpikontratatzeko edo hirugarrenen esku uzteko baimena edukita ere, Hornitzaileak kontratuko obligazioak bete beharko ditu, obligazio horiek Hornitzailearen erantzukizuna izaten jarraituko baitute. Eskaeraren lagapen ez-adostua, osoa edo partziala, deuseza izango da.

11. BERMEA

Eskaeraren xede diren makinak, lan baliabideak eta instalazio espezifikoak, elektrikoak, hidraulikoak eta beste guztiak eta Hornitzaileak horietarako fabrikatutako edo erositako elementuak ere guztiz bermatuta daudela ulertuko da. Produktuen diseinuan, materialean, fabrikazioan edo muntaketan duten edozein akatsen aurka bermatuta daude, BI (2) urteko epean, entrega albarana sinatzen denetik zenbatzen hasita, eta Erosleak tarte horretan produktuen funtzionamendu okerrarengatik eduki ditzakeen gastuak Hornitzailearen kontura pasatzeko eskubidea edukiko du, bai eta kalte-galeren ordaina hari eskatzeko eskubidea ere.

Klausula honetan araututako gertaeretatik zein kontratua ez betetzetik eratorritako kostu, gastu edo erantzukizunen ordaina jasotzeko, MONDRAGON ASSEMBLYk zenbateko horiek Hornitzaileari ordaintzeke dituen fakturretatik deskontatu ahal izango ditu, edo Hornitzaileari egin gabe dituen ordainketak atxiki, nahiz eta beste eskaera batzuetatik eratorritako ordainketak izan. Hornitzailea, gastuak ordainduta edo kenduta ere, ez da Eskaeraren arabera dituen betebeharrak eta erantzukizunetatik libratuko.

Hornitzaileak konpromisoa hartzen du jakinarazitako akatsak HAMABOST [15] egun naturaleko epean ordeztzeko edo konpontzeko, jakinarazten direnetik zenbatzen hasita. Hornitzaileak ez badie garaiz eta behar bezala erantzuten Eroslearen errekerimenduei, Erosleak bere kontura konpondu edo ordeztu ahal izango ditu ondasun edo produktu akastun horiek, eta Hornitzaileari jasanarazi ahal izango dizkio horien ondoriozko kostu guztiak, bai eta hornitzailea ez betetzearen ondorioz sortutako kalte-galera guztiak ere.

Bermearen arabera ordeztu edo konpondutako produktuak, konponketa edo ordezkapena eragin duten produktuei aplikatu beharreko modu eta baldintza berberetan bermatuko dira.

12. ORDEZKO PIEZAK

Hornitzaileak Eskaeraren xede diren ondasun eta produktueterako beharrezkoak diren eta gomendatzen diren Ordezko piezen zerrenda entregatuko dio Erosleari, bakoitzaren prezioaren azalpenarekin, zeina aurreko atalean definitutako Bermeak estaltzen ez dituen kasu guztietarako aplikatu ahal izango baita. Prezioa eguneratu ahal izango da baldin eta Hornitzaileak Ordezko piezen kostuaren igoera behar bezala justifikatzen badu, eta igoera hori kalkulaturako prezioaren %10 izan daiteke gehienez ere.

Hornitzaileak bermatu beharko du Ordezko piezak HAMAR (10) urteko epean eskuragarri egongo direla, aurreko atalean azaldutako berme epea hasten den unetik hasita.

13. PREZIOA ETA ORDAINTZEKO MODUA

Eskaeretan ezarritako prezioak finkoak dira. Edozein alderdik proposatzen duen eskaera aldaketa batek hitzartutako baldintzak aldatzea badakar, Erosketa Sailak onartu beharko du aldaketa egin aurretik, eta idatziz berretsi. Baldintza hori bete ezean, Mondragon Assemblyk ez du bere gain hartuko hitzartutako baldintzen gehikuntza gehigarririk.

Ordainketa Mondragon Assemblyn salgaia onartu eta dagozkion fakturak jaso ondoren egingo da.

Faktura Eskaeraren xede diren ondasun eta produktuak entregatu ondoren egingo da, gutxienez HAMABOST (15) egun naturaleko epean, Mondragon Assemblyk entrega albarana sinatzen duenetik zenbatzen hasita.

Ordainketa data, kontrakoa adostu ezean, banku transferentzia bidezkoa izango da, eta fakturaren datatik HIRUROGEI (60) egunera egingo da, hilaren 10a eta 25a muga egunak izanik. Horrek ez du eragotziko Erosleak ordainketak atxikitzeko aukera, Eskaeraren xede diren ondasun eta produktuen gaineko edozein karga, kargu eta/edo erreklamaziorik ez dagoela frogatzen duen ebidentzia jaso arte, zeina erosleak erabakitzen duen moduan eta xehetasunez egin beharko baita.

Eskaera alderdiek hitzartutako data baino lehen entregatzen bada, fakturak egiteko data ondasunak eta produktuak entregatu behar ziren egunetik hasiko da zenbatzen, eta ez benetan entregatu diren egunetik.

14. KONFIDENTZIALTASUNA

Alde bakoitzak beste aldeari buruzko informazio sekretu eta konfidentziala eskuratu ahal izango du, eta alde biek informazio hori isilpean gorde beharko dute erabat eta zorrotz, bai kontratu harreman hau indarrean dagoen bitartean, bai modu mugagabea, kontratua amaitzen denetik aurrera.

Alderdiek elkarri bermatzen diote informazio hori isilpean gordeko dutela, behar bezala, eta hori bermatu behar dute, baita ere, beren bazkideek, beren sozietateetako administratzaileek, beren langileek, beren barruko zein kanpoko laguntzaileek eta zuzenean edo zeharka alderdiekin harremana izan eta informazio hori eskura dezaketen beste edozein pertsonak.

Hornitzaileak erabateko konfidentziasunez tratatuko ditu eta isilpean gordeko ditu Eskaera egitearen ondorioz ezagutzen dituen informazio, dokumentazio edo ezagutza guztiak, teknikak, ekipoak, planoak, produktuen zehaztapenak eta abar (aurrerantzean, Informazio konfidentziala), eta, beraz, Hornitzaileak Eskaeraren xedea lortzeko behar-beharrezkoa dena lortzeko baino ez du erabiliko Informazio konfidentziala, horretarako eman baitaio.

Hornitzaileak eskura duen informazio konfidentzial guztia behar besteko arretaz zaindu beharko da, eta informazioa zabaltzeak eragin ditzakeen kalte eta galeren erantzukizuna izango du, eta eskatzen den unean itzuliko da, eskaera amaitzean beranduenez.

Hornitzailearen langileek informazio konfidentziala eskuratu ahal izango dute soilik informazio horren helburua lortzeko ezagutu behar badute, eta informazio hori eskuratzen duen langileari jakinaraziko zaio zer konpromiso hartu diren informazio horren konfidentziasunaren gainean estipulazio honen ondorioz.

Informazio konfidentziala ezin izango da erabili eman zen xede bererako ez bada, eta ezin izango zaio hirugarrenari eman, ez eta haren erreproduzioa lortu ere, Eroslearen berariazko eta idatzizko baimenarekin ez bada.

Hornitzaileari informazio konfidentziala jakinarazteak edo dokumentazioa emateak ez dio batere eskubiderik emango Hornitzaileari Erosleraren jabetza industrialeko eta/edo intelektualeko eskubide babestuen edo know-howaren gainean.

Estipulazio honetan ezarritako konfidentziasun betebeharra indarrean egongo da aldeek harreman komertzialak eta/edo kontratu harremanak dituzten bitartean, eta harreman horien ondorengo HAMAR (10) urteetan.

15. JABEGO INDUSTRIALA ETA INTELEKTUALA

Oro har, eta salbuespenik gabe, Hornitzaileak Erosleari bermatzen dio entregatutako material guztiak eta horiek osatzen dituzten elementu guztiak indarrean dauden arauen arabera fabrikatuta eta muntatuta daudela, eta, bereziki, jabetza industrialari buruzko arauak eta material

horien erabilera eta salmenta askatasunari buruzkoek diotena betetzen dutela. Arau horiek urratuz gero edo arau horiek direla-eta Eroslea mugapen edo kalteren bat edukiz gero, Hornitzaileak zuzenean hartuko ditu bere gain egoera horien ondorioak; izan ere, Hornitzaileak konpromisoa hartzen du eroslea kalteetatik libre uzteko, Eskaera honen xede diren produktuen erabileraren eta salmentaren ondorioz zuzenean edo zeharka Eroslearen aurka hirugarrenek aurkezten duten demanden aurrean.

Material, dokumentazio, pieza eta plano guztien jabetza intelektuala eta industrialia eta, oro har, Erosleak Hornitzaileari eman dion edozein dokumentu, pieza edo informazioa, Eroslearena baino ez da eta Eroslearena izango da beti.

Hornitzaileak ezingo ditu Erosleak eman dizkion fitxategi edo planoak kopiatu, ez eta beste inori edo beste erakunde bati transferitu eta Eroslerarentzako Produktuak fabrikatzeko ez den beste xede baterako erabili ere. Plano edo fitxategi horiek bueltatu beharko dira Erosleak eskatuta.

Ondorioz, debekatuta dago Hornitzaileak aurreko paragrafoan adierazitakoaz bestelako xede baterako kopiak, erregistroak, fabrikazioa, salmentak, iragartzea, lagatzea edo erabiltzea. Hornitzaileak debekatuta dauka Produktuak eta fabrikazioaren planoak edo prozedurak erregistratzea, jabetza industrialeko edozein eskubidez baliatuta.

Erosleak berariaz eskatuta, Eskaeraren xede diren ondasunak eta produktuak *ad hoc* diseinatzen edo fabrikatzen baditu Hornitzaileak, Erosleak entregatutako planoak, diseinuak, programa informatikoak, tresnak edo makineria (halakorik balego), bai eta babes intelektuala edo industrialia izan dezakeen beste edozein dokumentazio edo informazio ere, Eroslearen jabetzakoak izango dira. Eskaera gauzatzean sor daitezkeen eta babes daitezkeen eskubide guztiak ere edukiko ditu Erosleak. Kasu horretan, Hornitzaileak ezin izango die aurrekoak hirugarrenei saldu, ezta horiek erabili ere, ondoren hirugarrenei ondasunak eta produktuak fabrikatzeko.

16. PUBLIZITATEA DEBEKATZEA

Hornitzaileak ezin izango du Erosleari egindako salmentei buruzko publizitaterik egin, bere edo hirugarrenen intereserako, salbu eta erosleak idatziz horretarako baimena ematen badio.

17. ETENDURA

Erosleak eskubidea dauka edozein unetan Eskaria gauzatzeari uzteko, erabat edo partzialki, eta Hornitzaileari idatziz jakinarazten dion egunetik aurrera edukiko du indarra etendurak. Hornitzaileak eskaera gauzatzeari utziko dio lehen aipatutako jakinarazpena jasotzen duenetik aurrera.

Kasu horretan, eskaera gauzatzeari utzi eta etendurak sei hilabete baino gehiago irauten badu, Aldeak ahalik eta azkarren elkartuko dira kontratuaren gorabeherak aztertzeko eta ikusteko ea ondoren Eskaera gauzatzen hasteko aukerarik dagoen. Etendura 6 hilabetetik gora luzatzen bada, Hornitzaileak eskubidea izango du Eroslearen konpentsazioa izateko, etenduraren ondorioz izan dituen gastuengatik, betiere gastu horiek behar bezala jakinarazten eta justifikatzen badira.

Eskaera berriro gauzatzen hasi dela idatziz jakinaraziko zaio Hornitzaileari, eta hark ez du ukatzeko eskubiderik izango.

18. KALTE-GALERENGATIKO ERANTZUKIZUN ZIBILA. ASEGURUA

Hornitzaileak Eskariaren xede diren produktuak fabrikatu eta entregatzearen ondoriozko kalte zuzen edo zeharkako guztien erantzukizuna izango du Eroslearen eta hirugarrenen aurrean, inolako muga kuantitatiborik gabe.

Hornitzaileak kalte-ordaina eman beharko dio erosleari hirugarren batekin hartutako konpromisoak betetzeko izan dituen kalte edo gastu guztiengatik (hala nola garraio kostu gehigarriak, eskulan gehigarria kontratatze beharra, etab.), eta kalte-ordaina ere emango dio Hornitzaileak kaltetutako hirugarrenari ordaindu beharko dizkion kopuru guztiengatik, azken horri aplikatutako kalte edo penalizazioengatik, Hornitzailearen ez-betetze bati egotzi ahal bazaizkio.

Hornitzaileak Eroslearen instalazioetan lanen bat egiten badu edo Eroslearen jabetza erabiltzen badu, eroslearen instalazioen barruan edo kanpoan, Hornitzaileak Erosleari kalte-ordaina emango dio eta Eroslea salbuetsiko du edozein erantzukizun, erreklamazio, demanda edo gasturen aurka (abokatuen edo beste profesional batzuen gastuak barne), Erosleari, bere langileei edo betetzearekin lotuta dagoen beste edozein pertsonari egindako kalteengatik (heriotzak barne). Eroslearen jabetzaren erabilera, salbu eta eroslearen zabarkeria eskusiboaren ondoriozko erreklamazio edo demandetarako.

Hornitzaileak konpromisoa hartzen du Eroslea erantzukizun orotatik salbuesteko eta erantzukizun osoagatik kalte-ordaina emateko, heriotzaren, pertsonen egindako lesioen edo hornitzaileak egindako edozein ez-betetzaren ondoriozko kalte materialen ondorioz, segurtasun, higiegi eta ingurumenaren arloko arazoak ez betetzearen ondorioz, erosleak defentsarako arrazoizko ordainsariak eta, hala badagokio, aseguru polizaren frankizia barne.

Hornitzaileak erantzukizun zibileko poliza bat izan beharko du, hirugarrenei eragindako kalteen diruzko ondorioak estaltzeko. Poliza horrek estaldura nahikoa izan beharko du, egotz dakioken erantzukizunari erantzuteko; erantzukizun hori ezin izango da, inola ere, 10 milioi eurotik beherakoa izan Ezbehar bakoitzeko. Hornitzaileak konpromisoa hartzen du Eskara indarrean dagoen bitartean poliza indarrean mantentzeko eta Erosleari kopia bat emateko, hala eskatzen duenean.

Aseguru polizak hirugarrenen edozein jabetza ere estali behar du.

Hornitzaileak erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu behar du produktu akastunengatik.

Hornitzaileak aseguru estaldurari eusteko baldintzak ez du salbuesten, ordeztan eta mugatzen Eroslearen aurrean duen erantzukizuna.

19. ESKUBIDEEI UKO EGITEA

Erosleak behin edo gehiagotan uko egiten badiu kontratu honetako edozein termino edo baldintza betetzeko exijitza, eta eskubide edo pribilegio horiek ematen badizkiote, uko egite hori ez da ulertuko termino, baldintza, eskubide edo pribilegio horiei egindako uko orokortzat, eta uko egite hori gertatu ez balitz bezala jarraituko dute indarrean eta ondorio osoz.

20. ERANTZUKIZUN SOZIALA, KORPORATIBOa ETA ARAUDI BETETZEA

Mondragon Assemblyk kudeaketa sistema integratu bat du, ziurtatua, eta horregatik kalitatezko lana egitera konprometituta dago, gizartearekin arduratsu izanik eta delituak egiteko arriskua murrizteko eta legea betetzeko kontrol zorrotzekin, hori guztia bere "Jokabide Kodean" eta bere politiketan ("webgunean" eskuragarri) jasota. Jarduteko espirtu horren arabera, Mondragon Assemblyk espero du eta eskatzen du Hornitzaileak ere modu arduratsuan, etikoki eta legearen arabera jarduteko.

Horretarako, Hornitzaileak konpromisoa hartzen du Mondragon Assemblyren Hornitzailearen Jokabide Kodea betetzeko. Kode hori www.mondragon-assembly.com webgunean dago eskuragarri, eta Hornitzaileak aitortzen du irakurri egin duela eta baldintza orokor hauek onartuz kodearekin bat egiten duela. Era berean, Erosleak edozein unetan informazioa eskatu ahal dio Hornitzaileari Jokabide Kodea betetzen duela egiaztatzeko, eta Hornitzaileak informazioa eman beharko dio.

Hornitzaileak giza eskubideen babesa, gutxieneko lan baldintzak, ingurumen erantzukizuna eta ustelkeriaren aurkako araudia errespetatuko ditu. Ondorioz, Hornitzaileak zero tolerantzia adierazten du delituen aurrean, eta berariaz debekatzen da haiek egitea, bai zuzenean, bai hirugarrenen bidez, eskaera gauzatzeari dagokionez.

Hornitzaileak konpromisoa hartzen du ustelkeria ekintzarik ez egiteko, eroskeria, influentzia trafikoa eta kapital zuriketa barne, bai eta bere erakundean horrelako jokabiderik ez gertatzeko ere, eskaera gauzatzeari dagokionez. Adierazpen horiek Hornitzaileari berari eta bertako langile guztiei eragiten diete, bai eta geroko azpikontratasta guztiei eta hornitzailearekin zerikusia duen beste edozein pertsonari ere, Eskaera betetzeko.

Eroslearen Jokabide Kodean aurreikusitakoa betetzen ez bada, azken horrek ezarritakoa baino lehenago suntsiarazi dezake eskaera, Erosleari dagozkion beste eskubide batzuei kalterik egin gabe, eragindako kalte-galeren ordaina barne.

21. KONPENTSAZIOA

Erosleak, bai eta Eroslearen Taldea osatzen duten enpresetako edozeinek ere, enpresa horietako edozeinek Hornitzaileari zor dion edozein zenbateko kendu edo konpentsatu ahal izango du, Hornitzaileak enpresa horietako edozeini zor dion edozein zenbatekorekin.

22. EZINBESTEKO KASUA

Aldeetako bat ere ez da izango bere betebeharrak ez betetzearen erantzule, baldin eta ez-betetze hori halabeharrezko gertaera baten ondorio bada.

Ezinbesteko gertaerak eragindako alderdiak ahalik eta lasterren jakinarazi beharko dio beste alderdiari, honako hauek adierazita: zer egitateri aurre egin behar dion, ezinbesteko gertaerak zenbat iraungo duen, eta haren ondorioak arintzeko zer neurri hartuko dituen.

Hornitzaileari eragiten dion ezinbesteko gertaera HOGEI (20) egun natural baino gehiago luzatzen bada Erosleari informazioa eman zaionetik, Erosleak Eskaera suntsiarazi ahal izango du, osorik edo zati batean, hartu izanaren agiriarekin ziurtatutako gutunaren bidez, baldin eta ezin

izan bada konponbide bateratu bat lortu ezinbesteko gertaerak eragindako arazoak konpontzeko.

Ezinbesteko gertaeran, alderdiek egokitzen jotzen dituzten neurriak hartu ahal izango dituzte, Hornitzaileak bere betebeharrak bete ezin izateak eragindako kalte-galerak saihesteko.

Aurrekoa alde batera utzi gabe, eta argitze aldera, Alderdiek ezagutzen dituzten eta Hornitzaileak Eskaera onartzeko unean dauden kasu guztiak ez dira halabeharrezko ezinbesteko gertaeratzat hartuko, eta, beraz, ez zaie klausula honetan araututakoa aplikatuko.

23. KLAUSULETAKO EDOZEINEN DEUSEZTASUNA

Eskaeraren estipulazio eta/edo baldintzetako bat baliogabetzat, deuseztagarritzat edo eraginkortasunik gabekotzat jotzen bada, deklarazio horrek ez du baliogabetuko Eskaeraren gainerakoa, eta, beraz, balioa eta eragina edukitzen jarraituko du. Orokor hauen goiburuek eta tituluek, dirudienez, kontsulta errazten dute; beraz, ez dute eraginik izango haietan jasotako xedapenen interpretazioan.

24. DATU PERTSONALEN BABESA

Aldeek konpromisoa hartzen dute, dokumentu hau eta baldintza orokor hauek zati direneko kontratu harremana garatzean eta betearaztean, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoak eta 2016ko apirilaren 27ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamenduak, datu pertsonalen tratamenduari eta datu hauen zirkulazio askeari dagokienez pertsona fisikoak babesteari buruzkoak (aurrerantzean, "DBEO"), edo erregelamendu hori ordeztzen, osatzen edo garatzen duen beste arauen batek, ezartzen dutenaren arabera eska daitezkeen betebeharrak guztiak betetzeko.

Aldeek agiri hau sinatzen duten ordezkariak jakinarazten diete, DBEOan eta aplikatu beharreko gainerako araudian xedatutakoaren arabera, alderdi bakoitzak beren datu pertsonalak tratatuko dituela, haien kontratu harremanei eutsi ahal izateko.

Era berean, datuak hirugarrenei ez lagatzea bermatzen dute Aldeek, salbu eta datuak legez eskatzen direnean (Ogasuna, Administrazio Publikoak, errekerimendu judiziala, etab.), eta kontratu harremana mantentzeko eta betetzeko Alderdien artean komunikatzen diren datu pertsonalak dituzten langileei buruzko informazioa emateko betebeharrak betetzea.

Interesdunen datuen tratamendua legitimatzen duen oinarri juridikoa da alderdiek izandako harreman komertzial eta kontratu harreman osoan egon daitezkeen eskaerak egiteko eta gauzatzeko beharra.

Dokumentu hau indarrean dagoen bitartean eta zerga araudiak agintzen duen bitartean gordeko dira datuak.

Nolanahi ere, interesdunek datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezeztatzeko/ezabatzen, aurka egiteko, mugatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzte dagokien aurrean, idatziz jakinaraziz helbide honetara: Baintxe industrialdea, 5A Pabiloia, 20550-Aretxabaleta (Gipuzkoa), Spain, 34 943 712080 harremanetarako telefonoa, eta info@mondragon-assembly.com harremanetarako helbide elektronikoa, eta gauzatu nahi den eskubidea azalduz.

Jakinarazpenarekin batera, interesdunek nortasun agiri nazionalaren edo horren baliokidea den dokumentuaren fotokopia aurkeztu beharko dute.

Era berean, datu pertsonalak babesteko eskubidea urratutzat jotzen badute, erreklamazioa aurkeztu ahal izango dute datuak babesteko eskumena duen Agintaritzan.

25. HIZKUNTZA

Baldintza orokor hauen bertsioren artean desadostasunik egonez gero, gaztelaniazko bertsiok izango du lehentasuna.

26. APLIKATU BEHARREKO LEGEA ETA ESKUMENA

Baldintza orokor hauei edota dagokien eskaerari buruzko eztabaidaren bat sortzen bada, Alderdien ordezkari arduradunak fede onez saiatuko dira eztabaida hori konpontzen. Alderdietako edozeinek eskatuta, alderdi bakoitzeko zuzendaritza nagusiaren ordezkari batek parte hartuko du negoziazioetan. Alderdi bakoitzak negoziazio horiei amaiera emateko eskubidea izango du, beste Alderdiari edozein unetan idatziz jakinarazita.

Baldintza Orokor hauekin eta dagokien Eskaerarekin lotuta sortzen diren tirabira guztiak, aurreko paragrafoaren arabera ebatzen ez badira, hurrengo paragrafoan ezarritakoaren arabera ebatziko dira behin betiko.

Alderdiek ez badute tirabira adiskidetasunez konpontzen, Alderdiak Bergarako (Gipuzkoa - Espainia) epaitegi eta auzitegien mende jarriko dira berariaz, eta berariaz uko egingo diote legokiekeen beste edozein eskumeni, Baldintza Orokor hauek eta baldintza horiek zati direneko eskaera interpretatzean, garatzean, betearaztean edota suntsiaraztean sor daitezkeen eztabaidak ebatzeko.

MONDRAGON ASSEMBLY, S. COOP.